



UROLA KOSTAN URTEAN 1.398.791

EDALONTZI BOTATZEN DIRA

Gaur egun, kafea edo tea edatea gure egunerokotasunean errotuta dugun ohitura da. Are gehiago, pertsona askok ezingo lukete bi edari hauek gabe bizi. Hala ere, oraindik ere pertsona askok lanean, kalean, etab. aipatutako edariak plastikozko edo paperezko edalontzietan hartzen dituzte. **Horregatik, Urola Kostan erabilera bakarreko 1.398.791 edalontzi erabiltzen direla estimatzen da.**



ZEIN ARAZO EKAR DITZAKE BEHIN ERABILI ETA BOTATZEKO EDALONTZI HORIEK DENAK PRODUZITZEAK ETA KONTSUMITZEAK?

PAPEREZKO EDALONTZIAK

Paperezko edalontziei dagokienez, konpostagarriak eta birziklagarriak direla pentsatzen badugu ere, **plastikozko geruza batez (polietilenoa) estalita daude**. Material horri esker, barruan dagoen likidoa ez da paperarekin kontaktuan sartzen. **Plastiko hori bere pisu osoaren % 5 da gutxi gorabehera**, eta fabrikazio-prozesuan energia-kontsumo eta CO2 emisio gehiago isurtzen ditu. Gainera, **papera eta plastikoa bereizteko prozesua konplexua eta oso garestia denez, birziklatzeko planta askok paperezko edalontziak baztertu eta zabortegetara bidaltzen dituzte**. Bestalde, **polietilenoa degradazioarekiko iraunkorra da eta 30 urte inguru behar izan ditzake deskonposatzeko**.

PLASTIKOZKO EDALONTZIAK

Plastikozko edalontzien kasuan, kalkuluaren arabera, **plastiko kilo bakoitzeko atmosferara 3.5 kg CO2 isurtzen dira**. Nazioarteko Ingurumen Zuzenbideko Zentroko datuen arabera, **gaur egun, plastikoa enekoizpena karbono isurketen % 3,8 da, eta 2050erako kopuru hori % 13koa izatera heldu daiteke**. Egungo ekoizpen-mailak murrizten ez badira, ezinezkoa izango da planetaren tenperaturaren igoera 2°C-tik behera mantentzea. Bestalde, edalontzi mota hauek osasun arazoak ere eragin ditzakete, plastikozko **edalontzi askok toxina arriskutsuak jasotzen baitituzte**, hala nola **PCBak, ftalato koloratzaileak, Bisfenol A edo PBDE**, beste hainbat sustantzien artean. Material horiek guztiak **kutsatzaileak isurtzen dituzte gure gorputzera, dosi txikitik**.




Plastikozko edalontzi askok dituzte toxina arriskutsuak, PCBak, ftalato koloratzaileak, Bisfenol A edo PBDE



Paperezko edalontzien birziklatzeak kostu handiagoa dauka



Paperezko edalontziak azkenean zabortegetan bukatzen dute. Polietileoak 30 urte behar izaten ditu deskonposatzeko



Paperezko edalontziak CO2 azterna gehiago uzten dute

Beraz, **edalontzi berrerabilgarriak erabiltzeak, ingurumenean ez ezik, pertsonengan ere onurak eragiten ditu**. Horregatik, hasi etxeko armairu barruan ahaztuta duzun **edalontzia berrerabiltzen!**

UROLA KOSTA
INGURUMENA

 UROLA KOSTAKO
UDAL ELKARTEA
www.urolakosta.es